

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2008ko irailaren 19a / 245. zenbakia / 19. urtea

- **HERRIKO KONTUAK Orioko 1. Gazte Festak** 05
- **KIROLA 15. Surf Txapelketa** 08
- **AIAKO BERRI Neguko ikastaroak** 10

- **AIAKO ELKARRIZKETA Saharako haurrak** 11
- **IRITZIA Idoia San Sebastian** 22
- **HERRITARRA Jose Antonio Salsamendi** 29



Kontxan ere leku
eske datoz neskak

Eba, Ane eta Itziar oriotarrek eta Aitziber aiarrak aukera izan dute aurten Kontxako estropadan lehiatzeko, historian lehen aldiz.

elkaritogia
ANTILLA
jatekatea
 Alustari kalea, 2 - TEL: 943 83 28 00

Gabon
TABERNA
 plater kombinatua eta pintxoak
 Tfnoa: 943 83 06 09

Goizeko
 KAFETEGIA
 ☎ 943 83 28 55
 Aita Leiztrudi, 33 behea - ORIO
 Autobus parada ondoan

Gure Txoko
Argentea Txoko

HAIZE BERRI
taberna-jatekate-kafetegia
 Plater kombinatua, bakatak, hamburgoak, ruzioak, eguzko menua...
 eta etxera eramateko zerbitzua!
 Euzko Leiztrudi, beheko 1 - ☎ 943 83 16 32 - Autobus parada ondoan

SEGA
taberna-jatekate
ekintzak, bazterak, jantzeriak
 Santo Erreka auzoa
 Tfnoa: 943 83 07 16

ARKAITZ
Taberna
 Pintxoak, plater kombinatua eta ogitarleko mundialak
 AIBESILABU KALEA, 1
 Tel: 943 83 16 57

LORETXU JATEKATEA
 Euzko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

ASADOR XIXARIO
 Euzko Gudari kalea, 2
 Tel: 943 83 00 09 - ORIO

ITZALA
kartuta jokatzen ari garenak
 Tel: 943 83 12 59

KOLON TXIKI
taberna-jatekate
 Herriko Enparaneta, 4
 ORIO
 Tel: 943 83 00 44

SARASUA ERRETEGIA
Plater bereziak: Arrain zopa, Arrain eta haragi erreak
 Euzko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

Galeria I
 Igo zaitez haize berrietara!
 943890416-677149932
 galeria1orio@hotmail.com

islada
 eskutik zentzua
 Sheila De Miguel - Saray Cendoya
 Euzko Gudari, 2 behea - Orio 20810
 Tf: 943 133 826
 e-mail: bladario@hotmail.com

AUTOAK AUKERA ONEAN
AIA ORIO
 Telefonoa: 943 13 04 38

Portu ERRETEGIA
 Santo Erreka Auzoa, 29
 943 89 44 34
 20809 AIA - ORIO
bazterreko barneko oinetan, barneko erretan, erretan barnean

Kirikiladenda - Ume arropa
argine
 www.lasone.com/argine
 Tel: 943 13 48 89
2,5€ko DESKONTUA FAMILIA UGARJEN TXARTELAREKIN

Automóviles ZARAUZ
 CITROEN ZERBITZU ORZALA
 bigiari berrak eta ia berriak dirudi
ZARAUZ. Tel: 943 13 13 50

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIA
 943 83 05 37 / 943 83 27 47

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27karkara@karkara.com
www.karkara.com**Editorea**

KARKARA taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabbarri

Erredakzio buruak

Lore Berasaluze eta Patxi Uranga

Erredakzio taldeaPat Cowie, Miren Etxeberria,
Ana Iturain eta Jabier Zabaleta**Aiako erredakzioa**

Eli Lasa eta Pat Cowie

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Patxi Uranga

Testuen zuzenketaMiren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Joxemari Olasagasti, OKK Gazte
Asanblada, Idoia San Sebastian,
Tito, Antonio Zumeta *Txanka* eta
Zaharren Babes Lekua**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

BanatzzaileakGarazi Bastos eta
Olatz Santa Maria (Orio)
Iruñe Aldai (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.100 aleKARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berremen
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Aupa Orio!

ANTONIO ZUMETA TXANKAK KONTXAKO ESTROPADARI JARRITAKO BERTSOAK

Aurtenguan ´re estropetako
fetxak doazte aurrera
bi edo hiru bertso jartzeko
oraintxe badet aukera
hau da jendiak kalian beti
egiten duen galdera
zein traineruak eraman bertzun
aurten Kontxako bandera.

Garai hontara iritsiz gero
beti izaten da saltsa
Kontxan bandera zeinentzat ote
egoten baitzan zalantza
beste hoik aña bazeate ta
mutillak bihotzak altza
Aizperro eta bere mutillak
bagenduen esperantza.

Kontxako estropa beti izaten da
guztionez berezi
eta guk ere hori nahi gendun
nolabait ere ikusi
koadrila asko indartsu zeuden
eta elkar ezin hautsi
baña ikusi zan aurtengo hontan
zein geratu zan nagusi.

Arraunlariei bertso honekin
eman nahi diet agurra
bandera hori irabazitzen
ez da izaten xamurra
hasieratik bukaeraraño
eman zenuten egurra
Kontxakoa degu arraun munduan
urtero izaten den Tourra.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie**LAGUNTZAILEAK**

Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Gero arte!

KARKARAKO lagunek utzitako tartetxo hau baliatu nahi dut etxerantz zuzi aurreko uneotan, Orioko lagunak agurtzeko. Nire esker ona adierazi nahi dizuet guztiei, bihotzez. Bizi izan ditugun momentu bereziengatik eta adierazi didazuen laguntasunagatik:

Joakin Gozategi, Leo, Ferxi eta Marije, Garazi eta familia, Oihana, Marije Txalupa, Milagros, Jaime eta familia, Mikel Txalupa, Iñaki Txalupa, Eva Txalupa, Korotxo, Koti, Mikel eta Joseba (Unar), Kikara, Xierba, Arkaitz taberna-koak, Mikel Aranzabal, Manex, Martxel Arkarazo, Iñaki, Bitor eta Galernako lagunak, Gogor eta Nerea, Chaggiiana, Axi Keler, KARKARAKO jendea... eta, nola ez, bereziki:

Natxo, Xabi Txalupa, Lucia eta Kayetana, Jose Manuel, Manuel, Julen, Amaia, Jon, Miren, Red Baron, Xabi P (K2), Gurutz, Aitor Manterola, Natalia, Aitortxu Mundaka, Tximist eta Karnele (besarkada bana zor dizuet) eta Jonetxo 8.

Aldez aurretik, barkatu norbait aipatu gabe utzi badut.

Gora gu ta gutarrak! Jo ta ke! Aupa Orio mekabendio!

TITO

(WWW.SINIESTROSMC.COM.AR)

Bandera beltza Orion

Kanpaina berezia egin du udan Kantauriko itsasertzean *Diosa Maat* belaontziak, gure kostaldeko ingurumen-eraginak salatzeko asmoz. Abuztuaren 15ean lehorreratu zen

Orion, bertan bandera beltza jartzeko, hondartzako lehen lerroan eraikinak egin direlako, kirol-portua eraiki delako eta Muntoko 8. sektorea urbanizatzeko proiektua garatu delako: izan ere, besteak beste, merkataritza-azalera handia egingo da erdi-sotoan.

Gure herriak autopistatik eskaintzen duen ikuskizuna, hirigintzaren aldetik, izutze-ko modukoa da.

Lehenago, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuak, Esther Larrañagak, hondartzaren albo-alboan egindako hirigintza-jarduketak eta kirol-portua salatu zituen. Orain, ordea, Ekologistak Martxan elkarteak egin du salaketa, bai eta hainbat oriotar eta kanpotarrek ere.

Era berean, Arkupeko Merkatarien Elkarteak eta Plan Partzialaren aurka eraturako Plataforma ere kexatu egin dira. Bertan, gainera, Orioko gizarteko zenbait eragilek dute ordezkariak. Hori horrela izanik ere, Jon Redondo alkateak entzungor egin du berriro, bost axola dio inguruan zer gertatzen den eta, oraindik ere, itsu-itsuan defendatzen ditu interes harrigarri horiek.

Redondok inolako lotsarik gabe argudiatu duenez, udalbatzak gehiengoz onartu du Muntoko hirigintza-garapenerako plan partziala. Lehenengo bozketan, boto-berdinketa egon zen. Bigarren bozketan, ostera, EAko ordezkariak alde bozkatu zuen. Hori dela-eta, plana boto bateko aldeaz onartu zen, E-B/Berdeak-eko ordezkariaren eskaera kontuan hartu gabe, hain gai garrantzitsuak erabateko gehiengoz onartu beharko zirela adierazi zuen-eta, hau da, bi herenek onartu behar-

ko lukete. Guztia, Orio erabat aldatuko, edo desitxuratuko, duen plan bati buruzko herri galdeketa eskariari entzungor eginez.

IÑAKI GARCIA ARANBARRI
EB/BERDEAK-EKO ZINEGOTZIA
ORIOKO UDALEAN

Osaba Joxemari

Ez naiz fededuna, osaba; ez naiz eliztiarra! Baina, nire sinismenak aldera utzi behar ditut, utzi duzun hutsuneak, nolabait ere, zurekin hitz egiteko beharra sentiarazi dit eta. Kasurik egin gabe joan zara, ez gaituzu agurtu, ezta muxurik eman ere. Errietarik eta marmarrik ere ez. Bizitzaren trenean ezagutu ginen, familiaren bagoian, eta gu barruan utzita jaitsi zara geltokiren batean. Eta trenak aurrera segitzen du, osaba. Ahaleginak eginda ere, ez da zure zain egon; hutsik geratu da zure aulkia.

Eta leihotik begiratuta, agur esan eta zuk utzitako oroitzapen onenekin geratuko naiz. Nirekin eramango dut beti zuk txikitzen utzitako errekuerdia (*alde egin zan hortik*, erantzungo didazu orain), eta beste asko bezala, zure irribarreagoratu du aurrerantzean ere. Eskerrik asko, osaba!

Eta bai, osaba -utzidazu, azken aldiz: *osaba Joxemari, mirimari, lau hanka eta bost belarri!*-, zainduko ditugu zibila, lehengusu eta lehengusinak.

BADAKIZU

Eskerrik asko

Irailaren 9an eman zituen gure aitaren bihotzak azken tapadak eta, aldi berean, hutsune bat sortu zuen gurean. Une gogorak datozkigu gainera. Hitzez azaldu ezinezko mina eta bete ezinezko hutsunea utzi digu aitak. Hala ere, lerro hauen bitartez, hainbat laguni eskerrak eman nahi dizkiegu.

Lehenik eta behin, berak hala nahiko zuen, Orioko Arraun elkarteari, erakutsi digun berotasunagatik eta aitaren bigarren etxea izateagatik.

Bigarrenik, arraunlariei, aitari eskainitako begiruneagatik eta hainbeste une zoriontsu biziara zinezkiotelako. Azkena, aurreko igandean. Eskerrik asko.

Etxekoen partez, eskerrak eman nahi dizkiegu, baita ere, guregana hurbildu den jende guztiari eta herriari. Mila esker guztiok.

Azkenik, ez genuke bukatu nahi, gure aita bezala klubean (behean) dauden *jubenilei* besarkada eta muxu handi bat eman gabe. Zuek badakizue non egongo garen zain.

Besterik gabe, jaso dezazuela denok besarkada handi bat guregandik.

Aupa Orio!

URDANGARIN-MANTEROLA
FAMILIA



Allianz (li)

Marigre Zaldua
aseguru agentea

Bilbo Ordo. 10. bere-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-mail: zaldua.delaacruz.pa@allianz.es

INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

OKK GAZTE ASANBLADAK ANTOLATU DU JAIA, HERRIKO BESTE ZENBAIT ERAGILEREN LAGUNTZAREKIN

Orioko 1. Gazte Festak, gaztetxea aldarrikatzeke

OKK Gazte Asanbladak Orioko 1. Gazte Festak antolatu ditu irailaren 26, 27 eta 28rako.

1. Gazte Festak gaztetxe auto-kudeatuaren beharra jai giroan aldarrikatzeke antolatu dituzte. Ekimen hori herriari aurkezteko eman zuten gazteek prentsaurrekoa hilaren 12an, herriko plazan, eta hainbat gazte elkartu zen bertan, egitasmoari babesa emateko.

Festaren zergatia azaltzeko orduan, Orioko Udalak gazteekin izandako jarrera salatu zuten han hitz egin zutenek: gaztetxe auto-kudeatuaren sorrera eta elkarlana helburu hartuta, Udalarekin izandako elkarrizketek iazko abuztutik sanikolasetara arte iraun zuten, OKKk bultzatutako festa herrikoi haien arrakasta Udalak bere egin zuen arte. Aldundiko teknikariek egindako planari ere ezetza eman zion OKKk, elkarrizketen eta negoziazioen ondoren, inongo akordiorik izango denik ziurtatzen ez zuelako. Kultur eragileekin egindako bileran kartelak eta pankartak jartzeko baimena jaso arren, Gazte Festak aurkezteko prentsaurrekoaren berri ematen zuten kartelak kendu dizkietela jakinarazi zuten.

EGITARAUA

Irailaren 26an hasiko dira 1. Gazte Festak, okupazio egunarekin. 19:00etan txupinazoa izango da plazan eta, ondoren, trikipoteoa. 20:30ean txo-txongilo emanaldia eskainiko du *Blai!* taldeak. 21:00etan, berriz, ogitartekoak banatuko dira. 22:30ean Txinako puzgarriak beteko dira eta, eguna bukatzeko, kontzertua izango da herriko *I can't explain*, *Kenon*, *Orio konbakt rock* eta *Gozategi* taldeekin.



OKK Gazte Asanbladak Gazte Festak aurkeztu zituen irailaren 13an, plazan egindako prentsaurrekoan.

KARKARA

Larunbata, gaztetxe eguna izango da eta gosariarekin hasiko dute, 09:30ean. 11:00etan hasita, eskualdeko gazte olinpiadak izango dira,

Orioko batukada taldeak lagunduta. 14:00etan herri bazkaria izango da, bertsolariarekin. Menua marmitakoak, postreak eta kafeak osatuko

dute eta Kalakari, Unar, Kolon Txiki eta Gabon tabernetan daude txartelak salgai, 8 eurotan. 16:30ean eskualdeko gazte olinpiadekin jarraituko dute eta graffiti erakustaldia ere izango da ordu berean. 23:00etan *Darling shoes*, *The art of loosing* eta *Dj Illarrasen* kontzertua izango da.

Igandea, Koadrilen eguna, gazte txarangaren dianarekin esnatuko da, 09:00etan; 09:30ean, berriz, gosaria eta haurrentzako jolasak izango dira; 11:00etan, hamaitakoa eta koadrilen arteko herri kirolak; 16:30ean, uretako jokoak (balsa karrera, kukaña...); 20:00etan, Mikel Aranzabal eta *Azkaiteer Peloxen* kontzertu akustikoa; azkenik, 22:00etan, asteburuan ateratako argazkien proiektioarekin bukatuko dira festak.

Denok hondoratzer!

Aupa gazteak! Dakizuen bezala, 1. Gazte Festak ospatzera goaz herrian, eta, horretarako, ezinbestekoa zaigu zuen parte hartzea. Festa programan bada alde zureko prestakuntza behar duen ekintza bat: balsa karrera. Koadrila egunean, koadrila bakoitzak bere balsarekin, besteen aurka lehiatu beharko du. Ez du aparteko muntairik behar; egurrezko oholak bidon batzuen gainean eta denok hondoratzer; barkatu, ondo pasatzer. Ez ahaztu koadrilako alkandora, mozorroa edota identifikatuko zaituzten jantziekin bertaratzea. Besterik gabe, ondo-ondo pasa eta garbiak izan, zaindu ingurua eta topatu duzuen bezain garbi utzi, gutxienez.

OKK GAZTE ASANBLADA | GAZTE FESTEN ANTOLATZAILEA

URRIRAKO, BERRIZ, ESKULAN IKASTAROA ANTOLATU DUTE

Portugalera doaz Zaharren Babes Lekukoak 22tik 29ra

Zaharren Babes Lekuak antolatuta, Portugalera bidaiari egongo dute herriko zenbait jubilatuk, irailaren 22tik 29ra bitartean, hango zenbait hiri eta monumentu bisitatuz.

Zaharren Babes Lekuak Portugalera bidaiari antolatu du irailarako. Autobus bete lagun abiatuko da datorren astelehenean, 22an, 07:00etan Oriotik. Vilar Formoson sabela berdinu ondoren, Fatimara abiatuko dira, bertan gaua pasatzeko.

Asteartean Batalha herri hurbilduko dira, hango monasterioa ezagutzeko. Arratsaldean, Coimbra bisitatuko dute eta Isabel Portugalko erreginari hilotza gordetzen duen Santa Klarako monasterioan izango dira.

Alcobaçako monasteriora bidaiatuko dute hilaren 24an goizean eta, arratsaldean, Nazaré herriaren txanda izango da. Ostegunean, aldiz, Óbidosko eta Lisboako kaleetan ibiliko dira. Besteak beste, Baixa, Alfama, Belem eta Chiado auzoak ezagutu ondoren, Estorilera abiatuko da autobusa, hango hotelean gaua pasatzeko.

Sintrako herrian izango dira hurrengo egunean eta Jauregi Nazionala eta *Boca de Inferno* merkatua ezagutuko dituzte. Hotelera itzuli aurretik, Cascais herritik pasako dira.

Lisboara bigarren bisita



Argazkian ageri den Alcobaçako monasterioa bisitatuko dute, besteak beste.

Batalha, Coimbra, Alcobaça, Nazaré, Óbidos, Sintra, Cascais, Evora, Almendralejo eta Lisboan izango dira bidaiariak

ere egongo dute. Ozeanariora eta Vasco de Gamako zubira joango dira, besteak beste.

Hilaren 29an Oriora itzuli aurretik, Evora eta Almedralejoko hiriak bisitatuko dituzte.

ESKULAN IKASTAROK
Urrirako eskularen ikastaroa antolatu du Zaharren Babes Lekuak. Era askotako lanekak egongo dituzte, eta han azaltzeko deia egin diete antolatuak herriko gizezkoiei eta emakumezkoiei.

Irailaren 24a izango da ikastaro horietan izena emateko azken eguna.

LABUR

POLITIKA Legez kanpo

Ezker abertzaleko udal taldeak erabaki politikotzat jo du Auzitegi Gorenak EAE-ANV alderdia legez kanpo utzi eta bere ondatsunak likidatzeko emandako agindua. Epaia emateko orduan argumentu juridikorik ez dutela izan eta epaileak politikoen jostailu besterik ez direla adierazi dute zinegotzi abertzaleek. 1936an, frankismo garaian, PSOE bezalako alderdiekin batera ilegaltzatua izan zen alderdi bat berriro jokoz kanpo uztea Euskal Herriaren kalterako den beste urrats bat besterik ez dela gaineratu dute alderdi ekintzaitetik.

HIRIGINTZA Zubi berria

Hilabete gutxira eraikitzen hasiko diren bariante berriko zubiaren txostena ikusgai dago udaletxeko bulego teknikoan, irailaren 24a bitartean. Alegazioak egiteko epea ere egun berean bukatuko da.

Bandera beltza

Ekologistak Martxan taldeak bandera beltza eman zion Orioren bokaleko eskubian hondartzaraino lurra hartuz, paseoa eta etxebizitzak egiteagatik eta herri arrantzalea atrakzio turistiko bihurtuko duen kirol portua eraikitzeagatik eman dio bandera.

ATC
Agentea: Olariaga

TORREALDAY
aholkularitza

Berezitasunak:
 ✓ Enpresa berriak sortzeko diru-laguntzen kudeaketa. Txekin.
 ✓ Aseguru artekaritza.
 ✓ Finken administrazioa.

Bazkide 4. behean. Tel: 943 13 37 20 Fax: 943 83 52 89 www.torrealday.com e-mail: olariaga@olariaga.com

RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

KAZETARI ORIOTARRAK IRAILAREN 1EAN HARTU ZUEN ORIOKO ETA AIAKO ERREDAKZIOAREN ARDURA

Hitzarako berriak

Aiora Larrañagak jasoko ditu

Urola Kostako Hitzak kazetari berria hartu du Orioko eta Aiako erredakzioan eta Aiora Larrañagak beteko du aurrerantzean Onintza Letek utzitako postua.

Joan den urteko apirilean hasi zen Aiora Hitzza egunkarian lanean. Aizarnazabal, Zestoa, Errezil eta Beizamako berri emaile aritu zen lehen hilabeteetan. Hasiera batean egokitzea zertxobait kostatu bazitzaion ere, gustura aritu zela aipatu digu kazetariak. Izan ere, hango berri biltzen hasi aurretik ezer gutxi ezagutzen zituen Beizama edota Errezil. Baina hainbat herritarren eta elkarteren laguntzarik ere ez zaio falta izan eta ederki bete ahal izan du lana. Alde horretatik, esker oneko hitzak besterik ez ditu guztientzako. Hemendik aurrera, berri, etxeko berriak zabalduko ditu eskualdean, Onintza Letek Zumaiako eta Getariako erredakzioaren ardura hartu ondoren.

KARKARAN ere irakurri ahal izango dituzue bere artikulua, bi hilabetetik behin, *Moi-la Bazterretik* atalean izango da, *Torrotxo*, Garbiñe Manteola eta Jokin Salsamendirekin batera laukotea osatuz.

HITZA, DENON ESKURA

Oriotarra izateak herrian lan egiteko orduan abantaila



Hitzarako berriak jasotzeaz gain, KARKARAN ere arituko da Aiora kolaboratzaile gisa.

KARKARA

batzuk izan arren, erronka puntu bat ere baduela aitortu digu Aiorak: *Bertan bizi naiz eta hori abantaila handia da herriko berri jakiteko eta zabaltzeko. Baina, ez pentsa, egokitzen ari naiz oraindik, bi aste besterik ez baitaramatzat lanean.*

Hortaz, erreferentzia berria du aurrerantzean Hitzza egunkariak, eta zerbait jakinarazi nahi duenak lasai egiteko gonbita ere luzatu du Aiorak: *Askotan ez zaie behar adina garrantzia ematen*

hainbat konturi eta, azkenean, ahaztuta geratzen dira. Halakoetan kontuan izan beharko da, guk garrantziarik eman ez diogun hori askorentzako interes handiko notizia izan daitekeela. Gertatzen denaren berri emateko nago ni; baina, horretarako, ezinbestekoa izango zait herritarren laguntza.

Hitzarentzat esateko zerbait duenak orio@urola-kostakohitza.info helbidera idatzi dezake edo 607 49 87 23 zenbakira deitu, besterik gabe.

“Garrantziarik eman ez diogun hori askorentzako notizia izan daiteke. Gertatzen denaren berri emateko nago ni; baina, horretarako, ezinbestekoa zait herritarren laguntza”
—Aiora Larrañaga

Lizaso dekorazioa

Eusko Gudari, 40
Tel: 943 83 09 84 Fax: 943 83 87 33

Pintorak ELKAR

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Abenduko industriagorri
940 83 08 45 / 819 60 23 35
ZABAUTZ

Dorromoro Denda

1961etik zure ondoan

AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37



Asteburu honetan izango da 15. Surf Txapelketa, itsasoak uzten badu.

KARKARA

STAND UP IZENENKO MODALITATEAN ESTROPADA IZANGO DA AURTEN

Olatuen zain, dena prest 15. Surf txapelketarako

Irailaren 19arekin bukatu da 15. Surf txapelketan izena emateko epea. Itsaso pixka bat izango den esperantzan daude orain Orioko Surf Taldekoak.

Iritsi da 15. Surf Txapelketa jokatzeko ordua. Itsasoak laguntzen badu, asteburu honetan izango da. Aurreko edizioetan bezala, aurten ere 60 lagun inguruk hartuko du parte. Txapelketaz gain, parrillada ere izango da azken egunean, zuzeneko musika eta guzti. Aitzaki ederra hondartzara aldera gerturatu eta herriko surflarien abileziarekin gozatzeko.

11 URTEZ JARRAIAN

Hasiera batean urtean bitan izaten zen txapelketa, sanpedroetan eta sanikolasetan. Horregatik, jende askok 15. urtea dela uste arren, 11 urte edo besterik ez ditu ekimenak.

Horixe azaldu digu elkarteko lehendakari Andoni Fernandezek. Ikusi ahal izango den mailaz galdera eginda, azken urteetan nahikoa geldirik edo egonkortuta dagoela aitortu digu Fernandezek: *Azken aldian beti berdinarik gabiltza eta atzetik jende gutxi dator. Batzuek oso maila ona daukate, Agotek eta Santik, adibidez. Gainontzekoak tartean gaude, gerra pixka bat eman nahian. Hori bai, sekulako giroa izaten da txapelketa osoan, eta hor zerikusirik handia daukate eguneko olatuek. Ohiko lehiaketa baino, lagunarteko txapelketa bat denez, gerta liteke ustez kaxkarrena denak faboritoak kanporatzea olaturik onenak berari tokatu zaizkiolako. Hor dago txantxa, gero urte guztian entzun behar izaten delako. Hori bai, bromak uretatik kanporatzen dira, barruan serio aritzen garelako.*

Parrillada ere izango da azken egunean, zuzeneko musika eta guzti. Aitzaki ederra hondartzara aldera gerturatu eta herriko surflarien abileziarekin gozatzeko

MODALITATE BERRIA

Aurtengo nobedadea *Stand Up* modalitatearena izango da. Ohol luze batzuk erabiltzen dira, eta laguna tente doa gainean, arraun batekin arraunean. Pasieran eta olatu txikitik ibiltzeko egokiak dira. Launa laguneko taldeak osatu eta estropadak egingo dituzte; baina, hori bai, banderarik jokatu gabe.

LABUR

ARETO FUTBOLA Denboraldia hasteko

Orioko Tabernak taldeko mutilek hilaren 28an emango diote hasiera 2008-09 denboraldiari. Jende gutxi bildu direla eta, talde bakarra izango dute aurten eta Nazional B kategorian arituko dira. Lehen partidari Izkeput taldea izango dute aurkari, kanpoan.

FUTBOLA Hasiera

Orioko futbol taldeek denetariko emaitzak lortu dituzte 08-09ko denboraldiko estreinako partidetan. Irailaren 13an jokatu zuten guztiek: erregionalekoak, etxean, Lazkao taldearen aurka, bana berdindu zuten; jubenilak Zumaiako taldearen aurka aritu ziren eta ez zen golik izan; kadetetan Euskalduna taldea 5-1 nagusitu zitzaizen oriotarrei; infantiletan Vasconia izan zuten parez pare Mendibeltzen eta 7-0 etxekoek nagusi; emakumezkoen ligan Mutrikuk 4-1 irabazi zuten; eta emakumezkoen F-11n, berriz, puntu bat lortu zuten Hernanirekin bana eginda.

PILOTA Bi Galarragak txapeldun!

Aimar eta Eneko Galarraga anaiak txapela buruan zutela itzuli ziren abuztuaren 29an Patxi Zaporraren omenezko txapelketatik. Bidezabal eta Arretxe azpeitiarrak izan zituzten aurrean finalean eta 22-16 gailendu ziren oriotarrak. Abuztuaren erdian hasi zuten txapelketa izena eman zuten 14 bikoteek eta azkenean, 44. edizio horretako onenak izan dira galarragatarrak.

DARDOAK

Europako txapelketa

Unar Taberna Bereziya taldeko hamar jokalaria Portugalen izango dira urriaren 2tik 5era, Bullshooter Europa txapelketan lehiatuko.

Oraindik kide guztien parte hartzea konfirmatzeko badago ere, Ramon eta Joseba Unanue, Gorka Elizondo, Jon Lertxundi, Inaxio Ostolaza, Jon Padrones, Rikardo Abad, Jonander Zaldua, Juan Mantrola eta Saioa Urdangarin Algarveko Tavira hirian izango dira Europako dardo jokalaririk onenaren txapela jazteko asmoz.

Modalitate askotan arituko dira oriotarrak, bakarka gehienak. Hala ere, Joseba Unanuek adierazi duenez, Saioa Urdangarin animatzen bada, kategoria mistoan arituko dira biak, iazko 5. postua hobeitzeko asmoz. Pertsonalki, podiumean izateko helburu jarri dio Unanuek bere buruari.

URNIETARA

Portugalerako prestaketa gisan arituko dira Unar taldeko bost kide Urnieta Samielak 2008 txapelketan.

Irailaren 25etik 29ra bitartean jokatu dituzte partidak, cricket 200 modalitatean.



LEHEN TALDEAREKIN ENTRENATZEN ARITU ZEN ABUZTUAN, BI ASTEZ

Baskonian jarraituko du Unai Eizagirrek

Unai Eizagirre Tau Ceramica Baskoniako jokalaria da. 1,82 m. luze da eta joko antolatzailea da abuztuan 20 urte bete dituen oriotar gaztea.

Baskoniak fitxatu zuenetik Gasteizen bizi da Unai Eizagirre; beraz, bigarren urtea du honekin Baskoniako 2. taldean eta oso gustura dabil. Aurten, gainera, oriotar batzuk izango ditu pisukide eta pozik da jokalaria.

Taldeek urrian ekingo diote ligako lehen faseari. 10 taldeko bina multzotan banatuta, bakoitzetik bost sailkatuko dira bigarren faserako, igoera jokatzeko, alegia. Hori izango dute denboraldiko lehen helburua: *Iaz sailkatu ginen eta aurtengo helburua ere berriro sartzeko izango da, gero edozer gerta daitekeelako.*

Joan den asteburuan urteroko sasoi honetan antolatzen den Euskal kopan hartu zuten parte. Bigarren finalerdietan Azpeitiako Lan Mobel taldea izan zuten aurkari eta 76-45 galdu bazuten ere, neurketa ederki etorri zitzaion Unairi, hastear den txapelketari begira, erritmoa hartu ahal izateko. Horretaz gain, egunero aritu da taldekideekin entrenamentu saioak egiten. Aurreantzean, behin ligako partidak hasita, astean hirutan egingo dituzte entrenamenduak.

LEHEN TALDEAREKIN

Aurtengo udan jende faltan zebiltzala eta, Pablo Prigioni eta beste zenbait Beijingo Olinpiar Jokoetan zirelako, bera aukeratu zuten lehen taldean sortutako hutsunea betetzeko. *Bi aukerazituzten, azaldu digu Unaik, bigarren taldeko norbait igo edo kanpoko norbait ekarri. Lehen aukera nahiago izan zuten*



Aurtengoarekin bigarren denboraldia du Unai Gasteizen.

WWW.BASKONIA.COM

eta horrela deitu ninduten lehen taldera.

Bi astez aritu zen entrenatzen, egunero, goiz eta arratsalde. Lagunarteko partidaren batean ere izan zen, ordezko gisa. Esperientzia polita izan den arren, bera ez dela batere aldatu eta berdin jokatzen jarraitu duela aitortu du oriotarrak: *Goiko taldean egonagatik, kirolari berbera izaten jarraitu dut. Kanpora begirako zerbait izan da batez ere, batzuekin edo besteekin aritu, hankak lurrean, ahal dudan guztia ematen baitut beti.*

Unai Eizagirreren gaineko kirol informazioa jasotzeko: www.baskonia.com edo www.basketbasko.com.

Arabako Baskonia taldeak fitxatu zuenetik Gasteizen bizi da Unai Eizagirre; beraz, bigarren urtea du honekin Baskoniako 2. taldean eta oso gustura dabil. Aurten, gainera, oriotar batzuk izango ditu pisukide eta pozik da Orioko jokalaria gaztea

MUSIKA, INGELESA, ESKOLA KIROLA ETA AEROBIKA ANTOLATU NAHI DITUZTE

Neguko ikastaroetan izena emateko garaia iritsi da

Denbora gutxi gelditzen da Udalak antolatutako ikastaroetan izena emateko. Irailak 22 izango da azken eguna.

Aurten, musika instrumentuak, dantza, aerobika, ingelesa eta eskola kirola eta gimnasioa ikasteko klaseak eskainiko dira Aian.

MUSIKA ETA DANTZA

Trikitixa, pianoa, kitarra, panderoa eta txalaparta izango dira instrumentuak. Prezioak honako hauek dira: instrumentu bat 22 euro, eta bi 28,57. Euskal dantzako ikastaroa ere emango da, eta 19,70 euro beharko dira parte hartzeko. Iaz haurrek bakarrik egin zuten, baina helduek ere eskatu dezakete aurten. Kasu horietan guztietan 50 euroko fidantza ordaindu beharko da, eta kurtsoetan %75ko asistentzia duenari itzuli egingo zaio. Hala ere, aipatutako prezioak zerbait igoko dira 2009ko ordenantzak sartzen direnean.

INGELESA

Heldu zein haurrentzako ingeleseko ikastaroak antolatu nahi ditu Udalak. Aurten, herritar helduek 35 euro ordaindu beharko dute hileroko, haurrek 25 eta kanpotarrek 50. Denak fidantza ordainduko dute eta berreskuratuko dute %75eko asistentzia betez gero. Taldea osatzeko, gutxienez lau lagun beharko dira.



Gaztetxo askok hartzen dute parte Udalak antolatutako ikastaroetan. KARKARA

Eskaerak erakusten digu zer eta nola antolatu —Eli Lasa

KIROLAK

Haurrentzako kirolak, gimnasioa barne, antolatuko dituzte, eta prezioak diferentek daude Aiako eskolakoentzat, beste eskoletara joaten diren aiarentzat eta kanpotarren-

tzat, eta baita ere kirol bat baino gehiago egiten dutentzat. Helduentzat, berriz, aerobik ikastaroari jarraipena eman nahi diote, eta 25 euroko kuota ordaindu beharko da hileroko.

ESKAERA

Eli Lasa kultura arduradunak azpimarratu du herritarren erantzunaren garrantzia: *Eskaerak erakusten digu zer eta nola antolatu daitekeen. Aia herri txikia izanda, zaila da nahi adina egitea.*

LABUR

III. Argazki lehiaketa

Sua, ura, lurra eta haizea dira aurtengo gaiak Aiako III. argazki lehiaketarako. Partehartzaile bakoitzak lau argazki auzer ditzake, eta 2007 edota 2008an ateratakoak izan behar dira. Hilaren 30a da aurkezteko azken eguna kultur etxean. Baldintzen zehaztasunak www.aia.pagoeta web orrian ikus daitezke.

Manex Rekarte Zinemaldiko aurkezlea

Donostian izango da Manex Rekarte aiarra Belodromoan emango diren filmen aurkezpenetan parte hartzen. Orain dela 8 urte, oraindik Goenkale telebistako programan aktore gisa aritzen zenean, eskatu zioten lehenengo aldiz parte hartzea, zeukan esperientziagatik eta hizkuntzekiko erraztasunagatik. Irailaren 26an Cher Ami filmaren eta 27an The Brothers Bloom eta Rachel Getting Married filmen aurkezpenetan izango da Manex.

Euskara ikasteko diru laguntza

Euskara ikasten egon direnek laguntza jasotzeko aukera dute. Eskaera aurkeztu epea irailaren 22tik 26ra bitartean izango da.

MA*NA lokutorioa

Udako ikastaroak, kirolak, dantza, (gitarra, pianoa, kitarra, panderoa, txalaparta, txistu, trikitixa, txistuak, txistuak, txistuak) • Musika instrumentuak • Prezioak, asistentzia • Irailak 22 izango da azken eguna • Irailak 22 izango da azken eguna • Irailak 22 izango da azken eguna

Enaia enparantza, 1
20810 ORIO (Gipuzkoa)

Tel./Fax: 943 13 50 82
locu-mana@euskalnet.net

 **kutxa**

*Aurten bi haur
etorri zaizkigu
saharrarek
Aljerian dituzten
kanpamenduetatik
uda pasatzeko.
Salam Lehbib
(neska) eta Lehbib
Smara (mutila).
Agurtzeko
bazkarian izan
ginen hurrekin,
eta Garbiñe
Azpiroz, J. M.
Aiertza, Otilia
Otxoa eta Peter
Ocaoinnealainen,
hartu zituztenei
iritzia eskatu
genien.*

PAT COWIE

Haurren egonaldia bukatzeaz zegoela, bazkari berezia eskaini nahi zieten Aiako lagunek. Hori egiteko, Ouffa Kholtirekin hitz egin zuten, kuskus eder bat prestatzeko. Ouffa Aian bizi den marokoarretako bat da, eta gustura aritu zela esan zigun 20 bat lagunentzako otordua prestatzen: berdurak, oilaskoa eta kuskusa.

Dena prest zegoenean, eseri eta oso gustura jan genuen Ouaffak jarri zigun plater handi eta eder batetik marokoarren erara prestatutako kuskusa. Alkar soziedadean antolatu zen bazkaria, eta helduek ezin zuten aipatu gabe utzi ekintza horren berezitasuna: Aiako soziedade batean, Saharako umeentzako bazkaria, marokoar batek prestatuta, dozena bat aiar, Irlandako bi lagun eta Eskoziako batekin elkartuta, lagun artean gozatzeko prest. Marka berria Aian, dudarik gabe!



KARKARA

Saharrarek agur esateko, kuskus marokoarra Alkarren

Lehbib Smara

Kanpamenduan jaio zen Lehbib Smara eta dituen zortzi urteak bertan eman ditu. Aurtengoa izan da Lehbiben bigarren bidaia Aiara. Iaz hasiera zaila egin bazitzaion ere, gero gustura ikusi genuen, eta aurtun ere herriko txoko guztietan ibili da korrika, jolasten, gozatsen Aian dituen lagunekin. Geldi egotea zaila egiten bazaio ere, minutu batzuk eman dizkigu gure galderei erantzuteko. Gaztelaniaz ikasten du eskolan eta etxera ekarri duten Otik eta Peterek aurrerapen nabarmena sumatu dute aurtun Lehbiben gaztelaniaz hitz egiteko gaitasunean, askoz ere motibazio handiagoa izan baitu.

Zer gustatzen zaizu Aian?

Dena. Herria, herriko festak, lagunekin jolastea, igerilekua... Ez dakitigeri egiten, baina uretan egoten naiz pisizina txikian.

Ba al dago gustatzen ez zaizun zerbait?

Den-dena gustatzen zait. Ez dago gustatzen ez zaidan ezer. Gauza guztiak gustatzen zaizkit!

Ondo moldatzen zara Aiako haurrekin?

Nire lagunekin asko hitz egiten eta jolasten dut. Ondo ulertzen diet eta haiek ere ulertzen didate. Lagun asko ditut hemen, eta bizikleta gainean edo pilotan aritzen gara.

Saharako kanpamendura bueltatzen zarenean, zer kontatzen diezu?

Arreba bakarra dut eta kontatzen diot hemen egindako guztia.

Janaria gustatu zaizu?

Bai. Arroza tomatearekin, salsarekin, arraina... asko gustatzen zaizkit. Fruta ez!

Etxera bueltatzen zarenean, zer eramango duzu mailetan?

Gauza asko: argazkiak, arropa, bai niretzat bai arrebarentzat, aita, ama eta lehen-gusuentzako gauzak. Atuna eta tomatea...

Nola izaten da itzulua?

Gustatzen zait abioi handia hartzea. Gogoia dut familia ikusteko, eta musu asko emango dizkiet. Eta espero dut datorren urtean ere etorriko naizela, ahal izanez gero.



Otilia Otxoa eta Peter Ocaoinnealain

Programa

O & P: Garbiñe eta Joxe Mariren kasua ezagututa hartu genuen erabakia. Alde onak ditu inplikaturata dauden guztientzat: umearentzat, guretzat, gure seme-alabentzat, hemengo gizartearentzat... Denoi ekartzen digu gogora boterea dutenek kalte handia egiten dutela batzuetan, eta ume hauek injustizia latza bizi dutela. Lehbiben gurasoek ez dute inolako esperantzarik etorkizunerako, baina umearentzat dagoena baino zerbait hobea nahi dute.

Mutikoa

O: Aurtun askoz lasaiago etorri da Lehbib iaz baino, eta ikusten da motibazio handia izan duela eskolan gaztelania ikasteko. Hemen ikasi du neskak beste era batera tratatzen, dena ezin da golpeka konpondu... Helduago aurkitu dugu. Oso mutil berezia da, eta argia; dena ikusi eta prozesatzen du.

Etxeko giroa

O: Jakina, zeloak azaltzen dira etxean, baina baita ere solidaritatea eta amore emateko gaitasuna espero ez zenuen egoeretan. Beti dago etxean laguntzeko prest, gureak ikusi eta ikasi behar duten gauza bat! Dinamika aldatu egiten da etxean eta badakigu ez dela beti erraza izango.

Etorkizuna

P: Aurtun harremana estuago izan da, baina gurasoekin hitz egiteko gogo handia erakutsi du beti. Gurasoek nahi dutena da mutikoa hona etortzea datozen 5 urteetan, eta gero gelditu, ofizio bat ikasteko. Kanpamenduan etorkizun beltza baino ez dute ikusten.

Salam Lehib

Aaiun kanpamenduan bizi da, eta zortzi urte ditu. Neskato- ren aurreneko bisita izan da hau. Erdia gaztelaniaz, erdia euskaraz erantzun digu, bai- na aurreneko hitza 'bai' edo 'ez' euskaraz izan da beti!

Zer gustatu zaizu Aian?

Igerilekura joatea, eta igeri egiten ikasi dut. Ikastaro bate- an izan naiz eta orain piztina handira salto egiten dut. Joxe Marik erakutsi dit bizikletaz ibiltzen. Eta lagunak ditut Aian, neskak zein mutilak.

Janaria gustatu zaizu?

Fruta eta barazkiak, ez. Baina bai haragia patatekin, albon- digak, oilasko errea, arrau- tzak, txokolatea... Amonak zopa baino ez digu jartzen!

Gustura aritu zara beraz?

Bai. Etxean Saharako dantzak egiten ditut Joxe Mari eta Gar- biñerekin. Gustatzen zait dan- tza egitea. Eta festetan



buruhandiak gustatu zitzaiz- kidan, batez ere buruan gau- za horrekin eman didatene- an. Igerilekua gehiago gusta- tzen zait hondartza baino; hondarra ez zait gustatzen.

Zer duzu mailetan?

Ez dakit. Arropa familiaren-

tzat. Hiru urteko ahizpa dut eta amona eta amarekin bizi gara haima batean.

Garbiñe eta Joxe Mariren alaba Joanerekin jolasten duzu?

Hasieran beti esaten zidan: *Nireada*. Baina orain, ez. Orain

gustura jolasten dugu eta ondo konpontzen gara.

Zer egingo duzu datorren urtean?

Orain abioia hartuko dut, gero eskolara joango naiz, eta, ondoren, Euskal Herrira buel- tatuko naiz.

Garbiñe Azpiroz eta Joxe Mari Aiertza

Programa

G & JM: Senideak aurretik sartu ziren programan, gero, hau- rren monitore batekin lagun egin ginen, eta kontziente geun- den Mendebaldeko Saharan pasatzen ari denaz, eta, jende asko bezala, ezinegon pixka bat geneukan besteen beharrak ikusita... Faktore askorengatik hartu dugu bidea.

Salam

G: Gure hirugarren esperientzia izan da, baina Salamen aurrenekoa. Hitz batzuk baino ez zekizkien gaztelaniaz eta hasieran keinuekin moldatu behar izan gara. Baina oso nes- ka ona da, erraz moldatzen dena, umila...

Ikasitakoa

G: Jateko izugarritzko antsietatea zuen hasieran, baina gero ikasi zuen 'Ez' esaten eta lasaitu egin zen. Hasieran gaztela- niaz egiten genion, hori ikasiko baitu eskolan, baina etxeko hizkuntza entzunda, asko interesatu da euskaragatik eta hasi zen erabiltzen.

Helduen rola

JM: Gehien harritu ziona, akaso, nirekin izan duen harre- mana izan da. Ni izan naiz jolasekoa, brometan aritzekoa, eta Garbiñe ordena jartzen zuena. Segituan ikasi zuen nire mugak zabalagoak zirela eta Garbiñerenak estuagoak. Esana betetzeko, bi alditan ez ziren esan behar gauzak. Hala ere, Garbiñe zen bere erreferentzia, erabakiak hartzen zituen Gar- biñeri begira eta ez niri.

Kontrastea

G: Beti galdetzen duzu on egiten dien gurea bezalako gizar- tera ekartzeak, baina ez da hemengo 'ongileek' asmatutako ekintza. Frente Polisarioak berak eskatzen du umeak hartzea. Horrela laguntza medikoa izaten dute, hizkuntzarekin asko

laguntzen du, beste kultura bat ezagutu... Gero, ikaste- ko, Kubara, Libiara edo Aljeriara joango dira.

J: Adin honetan ez dut uste eragin kaltegarriarik duenik materialki aberatsagoa den gizarte batean egotea. Ume- ak dira. Gu ere guk baino gehiago zuten senideen etxee- tara joaten ginen, baina alde horrek ez zigun kezkatzen, ez du kalterik egiten.



AIAKO LEIHOA

Jesus Aurizenea

Izena askori ez zaizue ezaguna egingo, baina ziur nago noizbait berak egindako eskulturen baten aurretik pasa zaretela asko jakin gabe egilea aiarra zenik.

Jesus Aurizenea Urdanetakako bikario etxean jaio zen 1901. urtean. Egur taila Zarautzen ikasi ondoren, Donostiara joan zen marrazketa eta modelatua ikastera. Lan ugari egin zituen han eta hemen: San Telmo museoko sabaia berritu, Irungo La Salle eskolan, Trintxerpeko elizan, Urretxu eta Zumarragan, Madrilan, Bartzelonan, Tuteran... enpresa sortu zuen arte beste bilagunekin batera; enpresa hartan hogeitazazpi izatera iritsi ziren.

Enpresa hark egin zituen Gran Kursaal zenaren maketak, garai hartan hiriko edifi-

ziorik politenetakoa izan zena; Kursaal ondoko zubia argiztatzeko garaia ailegatu zenean, betiko farola klasikoak jartzeko partez, zerbait berezia egin nahian burua astindu zuen *seis de bastos* asmatu arte. Bere garaietan, gauza berri guztiak bezala, nahiko saltsa eta polemika sortu zuen diseinu horrek, baina denborarekin oso ezagunak bihurtu dira eta Donostiako irudi ezagu-

netako bat dira gaur.

Baina Donostian bertan badago berak egindako beste eskultura ezaguna, batik bat Amara inguruan bizi direnentzat. 1934. urte inguruan Ehunurteurrenaren plaza delakoan, seigarren zenbakian etxe eder bat egin zen, garai hartan Amararen bukareran zegoena, eta erremate berezia emateko zerbait bitxia egiteko eskatu zioten Aurize-

neari, inguruetan zeuden etxeetatik ezberdindu zena. Horrela, hegoak zabalik izango zituen arrano bat egitea pentsatu zuen eta baita egin ere: sendo eta indartsu dago gaur egun ere.

Bizitzak baditu bitxikeriak, eta Jesusi ere horrelakoa gertatu zitzaion. Gran Kursaal zegoen lekuan Moneoren kuboak eraikitzen ikusi zituen, eta, horiekin batera, Kursaleko zubian berak egindako farolak kendu egin ziren txukundu eta berritzeko, inguru guztia ederragoa izan zedin. Farolak kentzen ikusi zuen, baina ez zuen aukerarik izan berrito lehengo lekuan nola jartzen zituzten ikusteko, bitarte horretan hil baitzen 1992ko abenduaren 19an.

ELI LASA

Lan ugari egin zituen han eta hemen: San Telmo museoko sabaia berritu, Irungo La Salle eskolan, Trintxerpen...

Donostian bertan badago berak egindako beste eskultura ezaguna, batik bat Amara inguruan bizi direnentzat

TXOKOAK ETA JENDEA



Hainbeste aldatu al gara?

Argazki honek sei urte ditu, herriko jaiak ziren eta umeak prest zeuden gimnasia erakustaldi bat egiteko, urduri baina pozik.

Eserita ezkerretik hasita: Maddi eta June Aldai, Andrea Zipitria, Maren Eizagirre, Maialen Ezeiza, Nora Zipitria, Itziar eta Eli G. de Txabarri eta Libe Esnal. Atzean: Miriam Sarasola, Maialen Markez, Irati eta Ane Eizagirre.

Zutik: Leire Sagastume, Aloña Zumeta, Ana Oteiza, Olatz Zuloaga, Mirari Azpiroz, Miren Zuloaga, Laida Arruti, Ane Iruretagoiena eta Ane Ezeiza.



ARGAZKILARIAK: LORE BERASALUZE, ANA G. DE TXABARRI, JOXEMARI OLASAGASTI, ERNESTO ANTONIO LA VENECIANA TITO ETA PATXI URANGA

Bukaera gozagarria

Gazi eta gozo, bietatik ekarri digu arraunak aurten, eta nahiz eta ez lortu Kontxako Bandera etxera ekartzea, bigarren igandean Donostian egindako estropada ederrak gozatu egin zituen arraunlarien eta zaleen gogoak. Gozoa eta pozgarria izan da emakumezkoak lehenengo aldiz Kontxan jokatzeko ikustea, bandera hori ere etorriko da-eta, noizbait, Oriora.

KARKARA TALDEA

Gorabeheratsua izan da aurten go boraldia oriotarrentzat. Oso estropada onak eta txarrak tartekatuz egin du ibilbidea Orioko traineruak eta horrelakoa izan da zaleoi utzi digun gustua, gazi-gozoa: Zarauzko Ikurrinarena —oso atzean geratu baitzen lehenengo egunetik— eta Kontxako lehen igandekoak —orduan galdu baitziren bandera lortzeko aukera


denak lehen kale zoritxarreko hartan— izango ziren seguru asko tristeenak; eta poza ekarri ziguten, ordea, Telefonikakoak eta, batez ere, Donostian joan den igandean ohorezko txanda irabazteak: 19. aldiz bigarren izateko estropadarik handiengan. Azpimarratzekoa da jendeak, zaleak emandako erantzuna. Horia izan da kolore ugariena eta oso ondo igerritu dute hori arraunlarietako beroa izan delako Orioko

gizonek eta emakumeek erakutsitako jarrera.

Sorpresa handia izan da aurten neskek aukera izatea Kontxako Bandera jokatzeko. Traineru kontuak gizonezkoentzat bakarrik ziren orain arte eta hori ere aldatu da. Sorpresaren atzetik poza izan zen nagusi eta irailaren 13an, larunbatean, itsaso zakarrari eta haize indartsuari emakumezkoen traineruek aurre nola egiten zieten ikusteko Donostiako badiara joan zen

jendetza da horren lekuko. Egun gogoangarria, dudarik gabe, historian muga jarriko duena eta oriotarrak eta aiarak han izan ziren, ez horiz jantzita nahi izango zuten moduan, baina ilusioz eta gogoz beteta gure neskek, haien uberan errazago izango dutelako atzetik etorriko direnak.

Argazki gehiago ikusteko:
www.karkara.com





Orioren historia Kontxan
1879 - 2008

L 879. urtean jokatu zen Kontxako lehen estropada. Oriok ez zuen hutsik egin lehen edizio hartan eta bigarren izan zen sailkapen orokorrean. Ordutik hona, 75 alditan hartu dute parte Kantauriko probarik handienean, tostako arraunaren olimpiadan. Berak izan dira trainerurik erregularrena eta 20. mendeko hamarkada guztietan ekarri dute banderaren bat etxera. 31 bandera irabazi dituzte guztira, beste inork baino gehiago, eta zaila izango da inork aurrea hartzea. 19 alditan bigarren izan dira; 12tan hirugarren; 3 aldiz laugarren; 5 bider bosgarren eta behin bakarrik seigarren. Bi alditan bakarrik erretiratu dira: 1911n, 2. jardunaldia ez zuten jokatu, eta 1935ean, trainerua hondoratu zenean:

Parte hartzea: 75
Txapeldun: 31
(%41,33)
Bigarren: 19 (%35,33)
Hirugarren: 12 (%16)
Laugarren: 3
Bosgarren: 5
Seigarren: 1
Zazpigarren: 0
Zortzigarren: 0
Erretiratuta: 2

1991tik hona Orioko traineruak beti hartu du parte Kontxako estropadetan (18 aldiz) eta behin bakarrik geratu da ohorezko txandatik kanpo.

Datuak: Joxemari Olasagasti








LANGILEAK BEHAR DITUGU

Orion eta Aian

ERREDAKZIO LANETAN BEREHALA HASTEKO



*Interesa baduzu, aldizkariaren
lokalera jo ezazu, lanpostu horiek
betetzeko eskatzen diren baldintzak
eta eskaintzen diren ordainsariak
eta gainontzekoak ezagutzeko.*

Telefonoz ere hots egin dezakezu:

943 83 15 27

Ez izan erreparorik eta animatu zaitez!

ADARRETATIK HELDUTA

2008ko udako datuak

Krisia, krisia! Badatorre-
la krisia! Hori izan da
udaberririk hedabide-
etan gehien entzun dugun
koplak. Eta noski, ze alorretan
antzematen da azkarren kri-
siaren eragina? Turismoan,
aisialdian, kontsumoan...
Gauzak horrela, aurtengo den-
boraldia nahiko kezkatuta hasi
genuen. Hala ere, abuztua-
ren amaiera arteko datuak
ikusita, emaitzak Orion, oro-
korrean, onak izan direla esan
behar dugu. Bisita gidatuetan
jaitsiera izan bada ere, kan-
pineko eta, Turismo Bulegoko
datuak oso onak izan dira.



IDOIA SAN SEBASTIAN
ORIOKO KANPINEKO ZUZENDARIA

TURISMO BULEGOA

2008. urtean, Turismo Bule-
gotik guztira 7.824 lagun pasa
dira. Iaz garai berean baino
1.564 gehiago.

- Jatorria kontuan izanik por-
tzentajeak honako hauek dira:
oriotarrak %14,45a, Euskal
Autonomia Erkidegokoak
%29,20a, Espainiako bisita-
riak %37,39a eta atzerritarrak
%18,94a.

- Espainiar estatutik etorri
direnak honela banatzen dira:
katalanak %41,73a, madrila-
darrak %14,73a eta nafarrak
%13,53a.

- Atzerritarren artean, berriz,
frantziarrak nabarmendu dira
bisitari guztien %40,14a izan
baitira, alemaniarak %10,52a,
Erresuma Batukoak %10,12a.
Iazko urteko datuekin alde-
ratuz, igoserarik altuenak ekai-
na eta uztailean izan dira eta
uztailean ospatu zen Bisi-
guaren Festa arrakastatsuen
ondorio zuzena izan da.

**Ze alorretan
antzematen da
azkarren krisiaren
eragina?
Turismoan,
aisialdian,
kontsumoan...
Horrela aurtengo
denboraldia nahiko
kezkatuta hasi
genuen**

BISITA GIDATUAK

Turismo Bulegoak bisita gida-
tuen eskaintza zabala propo-
satzen die herritarrei zein bisita-
rari: Orio-Donostia bitarte-
ko trekking-a, kayak eta
sagardotegia, kayak ibaian,
bisita kulturala, Orio-Donos-
tia itsasoz, Orioko historia
barkuan, Donostiako suak

barkuan eta Kontxako
estropadak barkuan.

Bisitetan arrakasta-
tsuenak kayak eta sagar-
dotegia eta barkuko irte-
erak izan dira; ordea, jen-
de gutxiagok erakutsi du
interesa bisita kulturala
egiteko. Aurten bisita gida-
tuetan iaz baino jende
gutxiago ibili da, denera
372 lagunek hartu dute
parte eta iaz 445 izan ziren.
Jaitsiera hori azaltzeko bi
arrazoi izan dira nagusi:

- Eguraldi txarra edota
itsaso txarraren eraginez
bisita asko bertan behera
utzi behar izan dira: guz-
tira 20 egin dira eta beste
29 bertan behera gelditu
dira.

- Egin diren bisitetan kri-
siaren eragina nabarme-
na izan da, iaz baino jen-
de gutxiagok parte hartu
baitu.

Jendearen jatorriaren
arabera %15,05a oriotar-
rak izan dira, %48,65 Eus-
kal Autonomia Erkidego-
koak, %16,93 Espainia-
koak eta %19,35
atzerritarrak.

KANPINA

Kanpineko okupazioa
maila %67,27koa izan da,
iazkoarekin alderatuz,
%3,32 gutxiago. Okupa-
zioan jaitsiera nabarme-
na izan da ekainean,
gehienbat eguraldi txar-
raren eraginez. Uztaile-
aren bigarren hamabostal-
dian eta abuztuan, berriz,
kanpina beteta egon da.

NIRE HONETAN

Itxaferoak
Orio estilora!

Irailak arraun kolorea,
zaporea, usaina eta
lizaera ditu gurean.
Azokan ere galtzontzilo eta
kulero horiak barra-barra
salduko dira seguru asko
hilabete honetako lehen bi
ostegunetan. Maiz entzun
izan dut traineruak eman
diola sona herriari, Orioz
hitz egitea arraunaz hitz
egitea dela —hala ageri da
orioestilora.com
webgunean— eta asko zor
diogula arraunari.

Egindako lanari
meriturik kendu gabe,
zalantzan jarriko nituzke
baiztaper horiek. Hala ere,
bada ukaezinezko
datu garbi bat:
traineruak —*Mirotzak*,
aurten— lortutako bandera
bakoitza ikusteko, plaza
oriotarrez, oriozalez
betetzen da:

errezibimenduak,
ongietorriak, aliron txin
pun! Txin, pun! batez ere.
Zenbat itxafero! Zer nolako
danbarra aurtengo hainbat
petardorena! Bikamiotan
eserita dauden aiton-
amonak sustoz zutitzen dira
aulkitik, denak batera;
balkoiak etxezalez betetzen
dira burrunbaren
epizentroa ezagutu nahian;
Antillako ahateak ere
eskandaluan hasteko
moduan. Ondo dago
garaipenak ospatzea (kirol
guztietan behar luke), baina
ez diru hainbeste suziri
behar, are gutxiago
horrelakoak.

LORE BERSALUZE



MOILA BAZTERRETIK

Denboraldiaren hasiera



GARBIÑE MANTEROLA

Erretiratu bat eta fitxaje berri bat. Horixe da moila bazter honetako denboraldi berriaren abiapuntua eta ni omen naiz hitza hartzen lehena. Irailaren 15a dagoneko, uda guztia pentsatzeko eta nik tarte hau betetzeko gai-

rik aukeratu ez, hau da hau marka! Kukuarri aldera abiatu naiz ideiarekin bat burura etorriko zaidalakoan eta oriotarrok bereziak egiten gaituen zerbait badela konturatu naiz bidean: udazkena Orio erara.

Orion, uda ez da oporraldiaren akaberarekin batera bukatzen. Izan ere, azken urtetan hedabideek ahotan izan duten oporren ondorengo sindromea herritar gutxi du ezagun. Sindrome propioa pairatzen dugu: Kontxa bigarrenengoaren ondorengo sindromea, irailako bigarren astelehen hau erabili ohi baitugu udako balantze pertsonala egiteko. Askorentzat astelehena benetako burukomin bihurtzen den egun honetan udazkena ate joka dugula konturatzen gara.

Baina horra hor oriotar-

rion hurrengo berezitasuna: udazken hitzak ez du lekurik kostatzen parte honetan, sanikolasak arteko aldia izaten baitugu Orion. Dena izaten da *sanikolasakarte* sasoi honetan. *Sanikolasakarte ez det bate parrandik ingo!* edo *sanikolasakarte enaiz hasiko estudiantzen, geo izangoet hortako nahiko denboa*. Gainera, ez du marka makala *kofradiko muñekituak*, abenduaren 6an urteak betetzen dituela eta Gabonetako argi makarrosoren piztuera bi astez atzeratzea lortzen duen bakarra baita. Eta bat-batean Faustina edo Katalina izeneko txerriaren alboan izaten gara, txistor ogitar-tekoa eskuetan dugula.

Baina lasai, Kontxa eta sanikolasak arteko aldirako bakarrik ez, *san juan berde* eguna arteko gaitzerrenda ere

Sindrome propioa pairatzen dugu: Kontxa bigarrenengoaren ondorengo sindromea, irailako bigarren astelehen hau erabili ohi baitugu udako balantze pertsonala egiteko

osatzen hasia bainaiz, denboraldi guztirako bazter nazkatzeko energia nahikoa bildu baitut uda honetan. Ea beste hirurek horrelakorik egin duten...

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuek: tripa, odaki, trekorra, txarizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

FISIOTERAPIA Gaitortze Arloko eta Neurketa Wieroston,
NUTRIZIONISTA Garbiñe Alzabar

sinergia investigación fisioterapia

Ibai ondo, 1, behe-sina | ORIO | 943 13 05 77 - 665 71 85 95

HERRI IKASTOLA

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL. 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38

AMILIBIA
ONTZIOLARI, S. L.

lari partean proiektu eta instalazioak

gu onak lehiatzen dituzten enpresak

Olaskoagacía auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

uranga
autozerbitzua

Aliprox

Eusko Gudari Kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Ondo pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

JAIOTAKOAK


- Paul Ostolaza Moreno, Orion, irailaren 3an.
- Maialen Iglesias Goya, Orion, abuztuaren 27an.
- Leire Alberdi Aragoneses, Orion, abuztuaren 23an.
- David Cornel Schiau, Orion, abuztuaren 19an.
- Amane Basurto Udabe, Orion, abuztuaren 14an.
- Libe Ostolaza Pertusa, Orion, uztailaren 23an.
- Antuko Sagardia Millar, Orion, uztailaren 18an.
- Cristofer Amets Soriano Rojas, Orion, uztailaren 14an.
- Ekhi Osa Iribar, Orion, ekainaren 26an.
- Lucia Sarasola Lope, Orion, uztailaren 9an.
- Nahia Blanco Requejo, Orion, uztailaren 6an.
- Iker Aramendi Arzalluz, Orion, ekainaren 19an.
- Oier Etxeberria Manterola, Orion, ekainaren 14an.

HILDAKOAK

- Lorenza Larrañaga Aranburu, Orion, irailaren 15ean, 94 urte.
- Joxemari Urdangarin Peña, Orion, irailaren 9an, 67 urte.
- Antonita Etxeberria Irastorza, Orion, irailaren 2an.
- Jose Antonio Urkizu Etxeberria, Orion, abuztuaren 31n, 58 urte.
- Maria Jesus Lertxundi Esoain, Orion, abuztuaren 30ean, 75 urte.
- Juana Martinez Alfaro, Orion, abuztuaren 28an, 79 urte.
- Arantxa Campos Illarramendi, Orion, abuztuaren 3an, 58 urte.
- Agustin Odriozola Alberdi, Aian, abuztuaren 1ean, 80 urte.
- Inazio Gorostidi Balda, Orion, uztailaren 30ean, 80 urte.
- Inazio Zaldua Tolosa, Orion, uztailaren 3an, 82 urte.
- Lontxo San Sebastian Eizagirre, Orion, ekainaren 25ean, 79 urte.
- Angela Fagoaga Sansiñenea, Orion, ekainaren 18an, 77 urte.

EZKONDUTAKOAK

- Julian Jesus Treku Urbieta eta Maria Luisa Rezabal Iparragirre, Orion, irailaren 6an.
- Imanol Atorrasagasti Sarasua eta Ainhoa Garcia Romeo, Orion, irailaren 6an.
- Urko Arroyo Etxabe eta Elixabete Uria Manterola, Aian, irailaren 6an.
- Alexander Larrañaga Ramiro eta Aiora Arrozpide Sarasola, Orion, abuztuaren 30ean.
- Jose Luis Loidi Aranbarri eta Monica Luiza Nogueira, Orion, abuztuaren 30ean.
- Asier Egaña Illarramendi eta Iraitz Elizalde Etxart, Aian, abuztuaren 30ean.
- Inazio Jabier Santiago Manzanedo eta Oihana Lupiola Lavin, Orion, abuztuaren 29an.
- Iñigo Fernandez Diaz de Mendibil eta Sonia Albizu Blanco, Orion, abuztuaren 9an.
- Hernan Roberto Guerrero Gavilanes eta Maria Belen Alvarez Mena, Orion, abuztuaren 9an.
- Oskar Garcia Sainz eta Maria Arantzazu Bidegain Perez de Calleja, Orion, uztailaren 26an.
- Jon Barandiaran Alberdi eta Amaia Nerea Garcia de Eulate Ezeizabarrena, Orion, uztailaren 12an.
- Pedro Manuel Leunda Urretabizkaia eta Cristina Latasa Osta, Orion, uztailaren 5ean.
- Xabier Arruti Agirre eta Maider Leunda Iruretagoiena, Orion, ekainaren 21ean.



*Joxemari
Urdangarin
Peña*



Jarraitzaile finak

Goian duzuen argazki dotoreak 51 urte bete ditu. Orioko Arraun Elkartek Bilbon –fotoaren atzeko aldean Portugaleteko zubia ikusten da– jokatu zuen estropada ikustera joateko autobusa jarri zuen, lehendabiziko aldiz, eta goiko koadrilak ez zuen aukerarik galdu nahi izan. Ez dakigu estropada hartan nork eraman zuen bandera etxera, baina itxura denez, koadrilak primeran pasa

zuen eta une hura betiko gogoratzeko atera zuten argazkia, denak horiz jantzita.

Hauexek dituzue, behetik hasita, ezkerretik eskubira argazkiko lagunak: Orion bizi zen Ceutako neska, Bixente Arruti, Ramon Lanberri, Eulogio Murgiondo, Jose A. Atorrasagasti, Juanillo. Zutik: Pako Bravo, Joakin Loidi, M. Luisa San Sebastian, Roman Lanberri, Marije

Gurrutxaga, Dorita Ferrin, Bentura Caballero, Florentino Arrizabalaga, Marixabel Urbieta, hurrengoa ez dugu ezagutu, Iñaki Arrilaga eta M. Dolores San Sebastian.

ARGAZKIA: OLIDEN HARATEGIA
INFORMAZIOA: ARGAZKIAN
BERTAN AGERTZEN DEN KOADRILA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta enreruntak
Fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 832 36 Eusko Gudari, 3

URAITZ
Lurrindegia
Asuntzeria
Enlataz: 943 83 16 97

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TKORROKAK - BALBULAK
Santiago eztoa - 18 postakutza
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmantrola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
R
ESTARCO
ISO 9002

E-Net
ESTARCO
ISO 9002

Estaroko balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

KRITIKA



Txalaparta, bertsoak eta kontzertu bikaina eskaini zizkieten Jorge Oteizari Arantzazuko santutegian.

KARKARA

Oteiza gogoratzeko, musika Arantzazuko isiltasunean

Jorge Oteiza oriotarra 1908an jaio zela-eta, ekitaldi ederra antolatuzuten Arantzazuko santutegian abuztuaren 27an, Musika Hamabostaldiaren baitan, eskultorearen jaiotzeren mendeurrena ospatzeko.

Elizingurua jendez beteta zela hasi zen ekitaldia, Ugarte anaien txalaparta doinuekin. Giro magikoa sortu zuten mendien artean, laino beltzak hurbiltzen ari zirela, soinu hunkigarria alde guztietatik zabaltzen zen heinean.

Ondoren, Juan Antonio

Urbeltz Ikerfolk elkarteko lehendakariak zuzendutako Apostoluen dantza ikuskituzun ederra eskaini zuten Argia, Oñatz eta Kezka dantza taldeek.

Jarraian, Andoni Egañak bertso sorta bota zuen, eta justu santutegiko kanpai hotsa hastear zegoela, bukatu zuen, zirrara sortzeko duen artea erakutsiz.

Beranduxeago, eliza barruan, Barbara Hendricks soprano ezagunak kontzertu bikaina eskaini zuen mila bat lagunaren aurrean ahots liluragarri eta sendoa era-

kutsiz. Amerikarrak Copland, Mahler, Schubert, Poulenc eta Straussen obrak kantatu zituen saioak iraun zuen ordu eta erdi pasatxoan. Hiru kanta gehiago ere eskaini behar izan zituen, Love Derwinger piano jolearen laguntzaz, entzuleek txaloka hala eskatuta.

Eta ilunpean, musikaren oihartzuna belarrian zuela oraindik, jendea oso gusturara abiatu zen etxera, Arantzazuko santutegiko harrizko apostoluak atzean utzita, isiltasunaren lekuko.

PAT COWIE

IKASLEAK IDAZLE



IZARO HOUGHTON |

LH 6. MAILA

Araua errespetatu

Udan betiko ekintzak egon dira haur eta gazteentzako: tenisa, igeriketa, jokoak... Baina baita berriak ere: hipika eta futboleko jokoak. Joko guztiek adin mugak dituztela badakigu, baina batzuk ez dituzte errespetatzen, adibidez: ni aurten hipikan apuntatu naiz eta 9 urtetik 16 urterakoentzat zen, baina adin hori ez zuten batzuk ere apuntatu ziren. Beste batzuk, berriz, adina eduki arren, ezin izan zuten izenik eman zerrenda beteta zegoelako. Adin hori ez dutenek ez lukete apuntatu behar, bestela zertarako mugak? Adinak errespetatu egin beharko lirateke eta ez hipikan bakarrik, beste jokoetan ere bai. Adin mugak errespetatu ez dituztenei, egitea eskatuko nieke; eta arduradunei aurrerantzean hobeto kontrola ditzaten. Agur eta hurrengora arte!

tel/fax: 943 89 00 69
Ezker kalea, 4. 20.000 ZARAUZ

URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

Zaragueta Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuritza.net

HANDIK ETA HEMENDIK

“

Urteroko tankeran joan ziren ospakizunak, munduan gu bezalakorik ez dagoela esanez eta gehiegikeriatan. Hona ekar daitezkeen kontuen artean aipagarriena jai amaiera, film italiar baten modukoa. 04:30etan espontaneoren bati, marea bete zegoela baliatuz, erriean igeri egitea otu zitzaion. Ideiak arrakasta izan zuen eta une batean 15 lagunetik gora baziren igerian. Arroparekin eta gabe, oriotarrak, zarautzarrak, galziarrak eta argentinarrak behintzat bai.”

IBON GAZTAÑAZPI

Orioko arraunlaria
Berria
2008/09/16

OSPAKIZUNA



Maitaneren ametsa bete da anaia txikiarekin

Ametsa errealitate bihurtu da azkenean 3 urteko Maitanerentzat Amets anaia jaio denean. Abuztuaren 29an jaio zen mutil puzkak 3.940 kilo pisatu zuen, eta 52,5 zentimetro luze izan zen. Izaskun Iturriotz eta Laurentxi Iturain gurasoak oso pozik daude Maitaneren erantzunarekin, denbora guztian Ametsen gainean egon nahi baitu. Hala ere, gustura bueltatu da eskolara eta etxeratzen den bakoitzean irrikitan egoten da anaia nola dagoen ikusteko.

Zorionak denoi!

ZORIONAK!



Donostiako Udalarri

Emakumezkoentzat traineru estropada antolatzeagatik, sari duinak jarri eta berdintasunaren alde apustu garbia egiteagatik. Askori iruditu zaie ez zela oso ondo egin, goizegi dela... ez dugu ezetzik esango, baina egia da aurreneko pausoa emateak izugarrizko bultzada ematen diola aspaldiko aldarrikapenari eta, arraunean ere, neskak bidea emateko eskatzen ari direla. Gizarteak, onartu ez ezik, ekimena txalotu ere egiten duela argi dago: ikustea besterik ez zegoen zenbat jende bildu zen badian emakumezkoen sailkapen estropadan gozatzeko.

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tel: 943 83 59 00

TANATORIO ZARAUZ
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldiaroko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroiak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz
Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 41
e-mail: hileresp@tanatorio.net

Peikeria eta estetika mirakulua

ZSS

- Tintak argiztatuz eta kolorezko naturalak
- Desfleccagako tinte iraultzaileak
- Arizazal, melajotzua
- Pedicura
- Depilazioa

Sax. Bilboko, 2 Tel: 943 85 51 70

ZUMINTZA
niskak
podiak
masajak
depilazio berrak eta gehiago

SOLARIUM

tel: 943 83 17 56

Faroeko bakailaoa daukagu

ITSAS MENDI
gutzizak

Etako Otxal, 5 Tel: 943 24 87 74 Ote

ZAPATA KONPONKETAK

Lanegintza: 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00
Larazkuntza: 09:00 - 13:00
Horietan arguztatzen, Ote

ORAIN DELA 25 URTE

Uholde ikaragarriak Euskal Herrian eta liskarra Kontxako Banderan

Abuztuaren 26ko eta 27ko tanta hotzak uholdeak eragin zituen gurean. Lehen zaparrada Gipuzkoan erori zen, abuztuaren 26ko goizaldean -02:06an, hain zuzen- hasi eta arratsalderaino; bigarrena, handiagoa, Bizkaiari tokatu zitzaion, 26ko arratsaldetik hasi eta 27 goiza arte. EAEn 1.500 milioi tona ur jaso ziren; Sondikan, esaterako, metro koadroko 336 litro, 24 ordu-tan.

Ibaiek gainezka egin zuten, etxebizitzak behera erori ziren, errepideak moztuta geratu ziren... Orduko agintariak egindako balorazioetan datu beldurgarriak kaleratu ziren: 53 hildako eta 20 desagertu EAEn, kaltetutako 2.000 enpresa eta 5.500 komertzio, milioika pezetako galerak, kaltetutako 68.000 familia Bizkaiaren... Hego Euskal Herriko 240 herrik jaso zuten *hondamendi gune* izaera, tartean Oriok eta Aiak. Biktimak laguntzeko ekimenak berehala antolatu ziren: Julio Igle-siasek kontzertua eskaini zuen



Kontxako lehen jardunaldian Oriok bakarrik egin zuen arraun, beste hiru ontziek boikota egin baitzuten, protesta moduan

eta 12 milioi pezetako laguntza eman zuen; rock kontzertua ere egin zen Donostian, Baron Rojo, Mecano, Alaska y Dinarama, Orquestra Mondragon, Nacha Pop, Derribos Arias, Triana Pop eta Miguel Rios musikariek.

ESKANDALOA KONTXAN

Kontxako Estropadak zeresan ugari eman zuen, eguraldia eta kronometroetako denbora

53 hildako, 20 desagertu, milaka kaltetu eta milioika galera utzi zituen abuztuaren 26 eta 27ko uholdeek

dantzak medio. Izan ere, bat-batean sartu zen galerna eta ontziak bete-betean harripatu zituen. Zierbena, Getaria, Hernani eta Astillerok bertan behera utzi zuten estropada eta Orioko *San Nikolas* ontziak urez beteta bukatu zuen. Epailiek denborak jakinaraztean sortu zen, hala ere, iskanbilarik handiena: 25:03 minutu Oriok; 25:04, Fortunak; Pedreñak 25:26 eta Cas-

trok 25:33. Berehala kexatu ziren azken bi taldeak eta Castrori 24:24 minutura jaitsi zioten denbora ofiziala. Pedreñarena, ordea, bere horretan utzi zuten, nahiz eta beren kronometroa aurretik atera zen Mundakarenarekin batera jarri zuten epailiek martxan. Irailaren 3ko bileran hala adostuta, lehen igandean, Kalkuk, Zumaiak eta Castrok arraunean ez egitera erabaki eta estropada eremua hartu zuten, Fortunarekin batera. Hilaren 9ra pasa zen estropada, eta parte hartuko zutela adierazten zuen agiria entregatu behar zuten ontziek 7rako. Aldez aurretik jakina zen, beraz, Oriok bakarrik egingo zuela arraun lehen jardunaldiko 1. txandan. Bigarrenean jokatu zuten Koxtapek eta Ur-Kirolakek eta Hondarribiak osatu zuten ohorezko txanda. 2. igandea ere astebete atzeratu behar izan zen, orduan itsaso txarra zelako. Irailaren 18an jokatu zen eta Oriok Kontxako 25. Bandera ekarri zuen herrira zalaparta artean.

ODITZ
Amara zaharrena niretzat
guztiz irakurri eta
 tel. 943 83 00 89

LURDES
 MARRI-KAZIA

 Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

arrotzegia
MIRANDA
 (JAKI B. LARRA ETI)
 tartina, ato, bollo, eskalera...
 behar diren arto, latak
 esneko ditxozaguz
 Suda eta bidex. 1 - 660 42 52 70 - SABAUTZ

He apaindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat
 Eusko Gudari, 8 - bajo
 Tel. 943 13 47 29
 ORIO

Izarra

ERREBELATU DIGITALA
 Telesista erosita
DVD GRABACAILUA
OPARI

MOMENTUAN

TIEN 21
 Bideo Produktzioa
 Aritzaga 18, Orrio / izarra7@vedafone.es / 943 83 33 81

taller mecanikoa
AUTO-LAN
C. B.

arrutira joan gabe
talde berria
zure zerbitzura.
 Pelotari kalea, 5 ORIO
943 83 00 34

JOSE ANTONIO SALSAMENDI | 1983KO KONTXAKO ESTROPADETAN EPAILEA

“Antolatzaileei zegokien epaileon akatsa konpontzea”

1983. urteko Kontxako estropada zalapartatsu hartako sailkapen proban epaile izan zen Jose Antonio Salsamendi. 25 urte atzera egin dugu berarekin.

Nola egin zinen epaile?

70. hamarkadan, Orioko arraun elkarteko batzordean nenbilen, hara eta hona. Ni, beti saltsan, Altzola eta beste traineruak egiten parte hartu nuen, esaterako.

1978. inguruan, epaile oso gutxi zegoela eta, arraun elkarreetara etorri ziren jende bila. Besterik gabe, probatzera animatu nintzen eta 8-10 bat urte egin nituen juez.

Prestaketa berezirik egin behar al zen epaile izateko?

Onak edo txarrak izan, ikastaro batzuk egin genituen. Arantzakoa gogoan dut: Gipuzkoako eta Espainiako epaileen elkarteko buruz ziren Imanol Beloki eta Iñaki Egibar izan genituen irakasle.

Egin dezagun atzera. Kontaiguzu zer pasa zen 83ko Kontxako estropadan.

Orduan lau epaile ginen: kronometroekin, Zinkunegi eta Lukin; Beloki irteerak ematen; eta ni kanpoko balizan, traineruek ziaboga behar bezala egin zezaten.

19 ontzi irten ziren denera eta lauk saioa bertan behe-erantzuten, sortutako galerana zela medio. Estropada bukatu bezain laster, irratibidez, kanpoko balizan dena ondo joan zela adierazi nuen. Lehorrera etorri nintzen arako, zer pasatzen zen jakin gabe, bor-borka zegoen arrapla. *Salsamendi, lapurreta ederra egin duzue!* esaten zidan jendeak. Akatsa non zegoen, ordea, ez zekien inork.



Arrauna urrutitik bizi du gaur egun Salsamendik.

KARKARA

oriotarrak izan dira beti— eta boikota egingo zutela adostu zuten. Bileraren berri banuen nik eta epaile bati, igandean istiluak izango genituela jakinarazi nion. Esan eta izan.

Eta iritsi zen lehen igandea, irailaren 4a.

Goizean balizak begiratzera joatean, mundakar batek eman zigun egindako akatsaren berri: haiek atera eta minutu irten zen Pedreñak Mundakako ontzia harrapatu eta pasa egin zuen. Helmugan, aurretik zetozenak bizkaitarrak zirelakoan, haien kronometroa gelditu egin zuten; Mundaka sartzean, berriz, Pedreñaren kronometroa. Horra hor akatsa. Izan ere, biek kolore bereko kamisetak eta trainerua baitzituzten.

Arraunerako ordua hurre-ratzen ari zela, Fortuna, Castro, Zumaia eta Kaiku estropada eremuan sartu ziren, estropada oztopatuz. Saioa bertan behe-erantzuten eta bilera egin genuen elkarreetako ordezkari, antolatzaile eta epaileok. Lehen jardunaldia irailaren 9ra pasa zen. Nik han bertan utzi nituen arbitro lanak. Epaileok akatsa egin genuen, gogorra, baina antolatzaileei zegokien hura nola konpondu erabakitzea.

Bigarren igandearekin zer datorkizu burura?

Tentsioa agerian zegoen. Juez ofizialik gabe jokatu ziren bi jardunaldiak eta estropada eremua kontrolatzera komandantziako patruilaren bat etorri zela uste dut.

Jendeak kristonak eta bi esan zituen Oriorengatik eta Oriok ez zeukan zerikusirik. Zumaia berak galdu zuen estropada eta bandera irabazteko guztia zuen alde; aise nagusituko zen, gainera.

Lehen igandean, goizean, balizak begiratzera joatean, mundakar batek eman zigun egindako akatsaren berri

Moilako soto batean goizeko ordu biak arte egon ginen, denboren paperari begira. Han ageritzenaren araber, Orio Pedreñaren aurretik zen, Kontxako zortzigarren tokia lortuz, eta hala erabakiz: Orio barruan zela eta ez, ordea, Pedreña.

Oriok ez zeukan zerikusirik. Zumaia berak galdu zuen bandera eta irabazteko dena zuen alde

Haserrea areagotuko zuen horrek?

Seguru asko. Larunbat arratsalde hartan, bilera egin zuten Aitzondon, Luxia eta Etxeberrira difuntuak eta Korta bi anaiek—Kaikun zegoen bat, Castron, bestea. Izan ere, Orioren aurkaririk handienak

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:14	06:44	07:14	07:44	08:14	08:44	09:14	10:14	11:14	12:14	12:44	13:14	13:44	14:14
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:44	15:14	15:44	16:14	16:44	17:14	17:44	18:14	18:44	19:14	19:44	20:14	21:14	22:14
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ - DONOSTIA

Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:09

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

ASTEBURUETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

DHARRA: lanegunetan koedro argidin ordutako autobusak Urbieltik pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, gutxiak pasatzen dira. Koedro lanetako orduak lanbatalako (lanegun) zerbitzuak bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzuak Landabusek darazka. Zerbitzuari buruzko informazioa lortzeko zentil bide-edeak:

www.landabus.com

TF 943 24 01 14

sms-a 5280 zerbakira

ITSASOA

Iraila	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
19	07:27 eta 19:54	01:16 eta 13:37	
20	08:10 eta 20:42	01:58 eta 14:24	
21	09:02 eta 21:43	02:46 eta 15:21	
22	10:14 eta 23:11	03:46 eta 16:37	☾
23	11:53 eta _____	05:07 eta 18:16	
24	00:56 eta 13:28	06:47 eta 19:47	
25	02:16 eta 14:37	08:09 eta 20:52	
26	03:13 eta 15:29	09:05 eta 21:41	
27	03:57 eta 16:12	09:49 eta 22:20	
28	04:34 eta 16:50	10:28 eta 22:56	
29	05:08 eta 17:25	11:04 eta 23:30	●
30	05:39 eta 17:57	11:39 eta _____	
01	06:10 eta 18:28	00:02 eta 12:13	
02	06:40 eta 18:59	00:33 eta 12:47	
03	07:11 eta 19:30	01:05 eta 13:22	

ZAINTZAKO BOTIKAK



IRAILA

- 19an, Mutiozabal.
- 20tik 26ra, Lasa.
- 27an eta 28an, Iriarte.
- 29an, G. Artiñano.
- 30ean, Larrañaga.
- 01ean, Mutiozabal.
- 02an, Etxeberria.
- 03an, G. Artiñano.
- 04an eta 05ean, Zulaika.

Azaldegi: Urdaneta kalea, 8.
943 13 31 83 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17.
943 83 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12.
943 83 29 70 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16.
943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza.
943 83 09 36 Orio

G.Artiñano: Zigordia kalea, 17.
943 13 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea.
943 13 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41
943 13 39 94 Zarautz

IBILALDI GIDATUA

■ Orion, AEKren eskutik. Maila uztieta ikastaroak, astean hiru egunez. Izena emateko azken eguna: Irailak 26. Informazio gehiago edo izen ematea Udaleko Euskara Zerbitzuran: 943 83 03 46.

IBILALDI GIDATUA

■ Irailaren 20an. Elkartegia: Aiako aparkalekuan, 09:30ean. Ibilbidea: Aiatik Altuzelaira kotxez, Elormendi, Etxeta, Granada, Illarragorri, Altuzelai.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, irailaren 24an jasoko dituzte altzariak. Bezperan utzi behar dira eta Udalean abisua eman.

LIBURU AZOKA

■ Urriaren 10etik 12ra izango den liburu azokarako bilketa. Kultur etxean utzi behar dira urriaren 1a baino lehen. Beharrezkoa da egoera onean egotea.

KONZENTRAZIOA

■ Irailaren 26an, euskal preso politikoak Euskal Herriratzearen aldeko kontzentrazio isila.

BILERAK

■ Orion, ostiralero, *Alkoholiko Anonimoen*

**Ostargiren ikastaroak**

Ostargi elkarteko lagunek urriaren 1ean hasiko dute ikasturtea. Erremateak, bolilloak eta pintura ohialean izango dira goizetan eskainiko dituzten ikastaroak. Arratsaldean, berriz, gantxilloa, jantzigintza, brodatuak makinaz, patchworka, lagarterana eta erremateen txanda izango da. Informazio gehiago 943 13 44 09ra deituta.

bilerak, 20:00etan, Goiko Kalean, Galtzarri elkartearen ondoan dagoen elizaren lokalean.

BEGIRALE IKASTAROA

■ Urriaren 3tik 2009ko maiatzaren 23ra, Urtxintxa eskolak antolatuta. 200 ordu teoriko eta 120 ordu praktiko. Prezioa: 415 euro,

matrikula 290 eur) eta lau asteburuko egonaldiak 125 euro, lo egitea eta otordu guztiak barne. Bukatutakoan Eusko Jaurlaritzak homologatutako Begirale Titulua eskuratuko dute. Izena emateko azken eguna irailaren 19a izango da. Informazio gehiago nahi

izanez gero eskatu Urola Kostako Udal Elkarteko Euskara Zerbitzuan (943 89 08 08), Orioko Euskara Zerbitzuan (943 83 03 46) edo www.urolakosta.org atarian.

MENDI IBILALDIA

■ Irailaren 21ean, GR 34 Gipuzkoako artzai bideak Talai Mendik antolatuta. Irteera: 07:00etan autobus geltokitik. Uranga burdindegian eman behar da izena irailaren 18a baino lehen eta 10 euroko fidantza ordaindu.

FUTBOLA

■ Irailaren 20ean, regional kategorian: Bergara-Orio. Jubenil: Orio-Burumendi. Kadete: Orio-Internacional. Infantil: Internacional-Orio. Emakumezkoen Ligan: Anaitasuna-Orio. F-11n: Real Union-Orio. ■ Irailaren 27an, regional kategorian: Orio-Zestoa. Jubenil: Ordizia-Orio. Kadete: Sto Tomas-Orio. Infantil: Orio-Sto Tomas. Emakumezkoen Ligan: Orio-Zestoa. F-11n: Orio-Zumaia.

ODOL EMAILEAK

■ Irailaren 29an, Orioko anbulatorioan dute hitzordua odol emaileak, 18:30etik 20:30era.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Zerbait saldu edo erosi, oparitu, lan eskaintzak, etxea alokatu... nahi baduzu, KARKARAN duzu iragarkietarako txoko berri hau.

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

ALOKAIRUA

■ Edozein negozio zabaltzeko lokal ezin aproposagoa alokagai Orion, Eusko Gudari kalearen erdi erdian. Informazio gehiago: 943 83 09 29 (Pilar) ■ Alokatzeko pisu bila gabiltza Orion. 676 28 25 88 (Susana).

SALGAI

■ Volkswagen California T4 salgai: 2000. urtekoa, 2,5 TDI motorra eta txuri kolorekoa. Ondo zainduta. Tf: 649 89 58 58 (Oidui Usabiaga) ■ Dragon Invacare markako

gurpildun aulki elektrikoa eta ranpak salgai, berri-berria. Prezioa: 3.000 euro. Tel: 943 83 27 63.

■ Egoera onean dagoen Volkswagen Golf autoa salgai, 1991. urtekoa. Tf: 630 77 88 07.

■ Sagarminak (makatz basatiak) saltzen dira. Tf: 662 390 838. Felix.

■ Mercedes *Class E* autoa salgai. 2003. urtekoa, 89.000 km eta ondo zaindutakoa. Tf: 686 77 25 81.

LAN ESKAINTZAK

■ Ingelesko klaseak esperientzia handiko irakasle tituludunaren

eskutik: banaka edo talde txikitan. Tf: 610 76 28 37 (Imanol).

■ Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egiteko Santion. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 656 73 12 43 (Maidier). ■ Montaje eta ajuste mekanikoan aritutako langilea behar dugu. 669 01 43 49.

GALDUTAKOAK

■ Nokia markako mugikor urdin eta txuria agertu zen kultur etxean, irailaren 5ean. Faltan duenak galdetu dezala bertan.

EZ DUZU AITRAKIARIK IRAILAREN 29TIK AURRERA...

*Igeriketa haurtxoak
Igeriketa haurrak
Igeriketa gazteak
Igeriketa helduak
Acquaerobik
Pilates
Judo
Karate
Yoga
Fisio-osasuna
Aerobik
Batuka
Gihar-Tonic
Spinning
Edadetuen gimnasia
Gym jazz
Gazteaerobik
Funky hip-hop
GAP
Fitness pertsonalizatua*